AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4550

AGINDUA, 2014ko urriaren 7koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Rafael Miner Urdangarin jauna eta Karlos Sukunza Pagola jauna Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Teknologia espezialitateko karrerako funtzionario izendatzen duena (Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2002ko azaroaren 8ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran).

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak –2014ko irailaren 9an– emandako 68/2014 zbki.ko autoa betez (36/2014 zbki.ko epaiaren ondoreak hedatzeko prozeduran emanda, Rafael Miner Urdangarin jaunak eta Karlos Sukunza Pagola jaunak eskatuta), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2014ko urriaren 6ko Ebazpena eman zen; ebazpen horren bidez aldatu egin ziren Langilearen Kudeaketarako zuzendariaren 2003ko uztailaren 21eko Ebazpena, eta Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2011ko apirilaren 18ko Ebazpena (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2002ko azaroaren 8ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran).

Ondorioz, Rafael Miner Urdangarin jauna eta Karlos Sukunza Pagola jauna Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan aukeratutako izangai gisa sartzen dira, Teknologia espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin eta honako puntuazio honekin: Rafael Miner Urdangarin jaunak 14,425 puntu; eta Karlos Sukunza Pagola jaunak 14,875 puntu.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa bete ondoren, eta praktika-aldia gainditu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako izangai hauek Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen Kidegoko karrerako funtzionario izendatzea, Teknologiako espezialitatean:

– Rafael Miner Urdangarin, 72443184 24A2410 erregistro-zenbakiduna.

– Karlos Sukunza Pagola, 35776407 24A2410 erregistro-zenbakiduna.

Bigarrena.– Rafael Miner Urdangarin jauna eta Karlos Sukunza Pagola jauna Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko karrerako funtzionariotzat hartuko dira, 2004ko irailaren 1etik aurrera.

Hirugarrena.– Kasu bakoitzean egin beharreko erregularizazioa egin, nominan eta gizarte-segurantzan.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak du epaia gauzatzeko tramiteetan gerta daitekeen edozein gai ebazteko eskuduntza, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 103.1. eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 7a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.